




OTALORAREN KOKALEKUA



Bilbotik edo Donostiatik

- Autopistatik, Bergara aldera jo eta jarraitu Arrasateko irteerara arte.
- Irteerako biribilgunean Gasteiz aldera hartu eta jarraitu errepide nagusitik, **Aretxabaleta Erdialdea** errotulua aurkitu arte (Arrasate igaro eta gero).
- Irteera horretara iritsita, jaitsi eta biribilgune batera iristen da, non Aozaratza auzoa eta Urkuluko urtegia seinalatzen diren.
- Norabide horretan jarraitu, beti gorantz (1,5 km), Otalora jauregia ikusten den gainera iritsi arte.
- Aparkalekuko sarrera ezkerretara dago. Sarrerako ate handia Otalora I eraikineko harrerako sarbidea da.

Gasteiztik

- Hartu autobiaiko Bergarako irteera.
- Fagor Ederlan kooperatiba igaro eta gero, eskuinetara dagoen 2. irteera hartu, Aretxabaleta Erdialdea adierazten duena.
- Irteera horretara iritsita beherantz doan bihurgune bat aurkituko duzu, biribilgune batera iritsi arte, non Aozaratza auzoa eta Urkuluko urtegia seinalatzen diren.
- Biribilgunean ezkerretara jo, eta bertan hasten da Otaloranzko igoera.
- Norabide horretan jarraitu, beti gorantz (1,5 km), Otalora jauregia ikusten den gainera iritsi arte.
- Aparkalekuko sarrera ezkerretara dago. Sarrerako ate handia Otalora I eraikineko harrerako sarbidea da.